

OREKA

AUDIO LABORATEGIA ELKARTEA
2023 URTEKO AKTIBITATE MEMORIA



OREKA

AUDIO LABORATEGIA ELKARTEA
2023 URTEKO AKTIBITATE MEMORIA
www.audio-lab.org
audiolab.eus@gmail.com

AURKIBIDEA

1. Sarrera. Gastuen justifikazioa
2. Ikerketa eta egitasmoen ekoizpena
3. Soinu kulturaren zabalpena
4. Hezkuntza
5. Ikusentzunezkoak (zerrenda)
6. Arte eszenikoak (zerrenda)
7. Musika lanak (zerrenda)
8. Erakusketak (zerrenda)
9. Bestelakoak (zerrenda)

1. SARRERA

Hemen aurkezten dugun memoria honek Audio Laborategia elkarteak (aurrerantzean AUDIOLAB) 2023ko urtean zehar sustatu eta ekoiztako aktibitateari buruzko laburpena aurkezten du.


Orokorrean, 2023a 2022an ereindako lanen uztaren ondorioa izan da. Urte intentso honetan, elkarteak, hainbat errekonozimendu jaso ditu egindako hainbat lanengatik, Bereziki zinemaren munduan, non bertzeak bertze seguruaski soinuari espresuki dedikatutako nazioarteko sari prestijiosuenetako bat jaso duen, Hollywoodeko supreproduzioen gainera. INTERNATIONAL CINEPHILE SOCIETYk urteoro ematen dituen nazioarteko sariei buruz ari gara hain zuzen. Bereziki, baina ez soilik "Samsara" filman gure elkarteak egindako ekarpenak jaso dituen laudorioek (Berlinale jaileko saritik hasi eta aipatu azken honetaraino) gure gainerako ekimenekiko feedback efektu bat egin du eta aurrerantzean egingo duela uste dugu, eta horrek aldiberean gure egitasmoei bertzeko dimentsio bat eman ahalko dielakoan gaude.

Edonola ere, eta nazioarteko sariek (dirusaririk gabekoak denak) eman dezaketen irudiaren gainera, errealitate ekonomikoa bertzekoa da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak OREKA egitasmoaren bidez eman digun laguntza (aurten ez dugu beste dirulaguntza publikorik eskatu), ezinbestekoa izan da elkartearen biziraupenerako.

2023an egindako lan zerrenda luzean, bereziki nabarmendu nahi ditugu ikerketaren, ikusentzunezkoen eta hezkuntza arloan egindako saiakerak. Elkartearen hamar urte pasako ibilbidean, sekula ez dugu hainbeste ikusentzunezko proiektutan parte hartu (azken 3 urteotan biderkatu egin dira proiektuak eta haietan parte hartzeko modu ezberdinak), bai soinu paisaiari buruzko aholkularitzan baita soinuekin egindako sorkuntzetan ere.

Berteak bertze, 2023 honetan, Ana Amado, Ekaitz Albite, Aritz Lazkano, Lois Patiño, Carlos Casas, Alexander Cabeza, Lucia Ezker, Elisa Arteta, Negu kolektiboa edo Juan Perez Agirregoikoa bezalako artista eta zinegile ezagunekin egin dugu lan (Ikus zerrenda osoa dokumentu honen amaieran).

Elkarlan hauetan, AUDIOLAB elkarteak, bereziki [SOINUMAPA.NET](https://www.soinumapa.net) egitasmoaren bidez urtetan jasotako ezagutza eta artxiboa eskura jarri dugu, beraien sorkuntzak aberastu asmoarekin, edo kasu hoberenetan haien ikerketa partikularrei ekarpen kontzeptualak eginez. Hein handi batean, elkarlan sare honek erakusten du elkarteak jorratu eta jorratzen dituen ikerketa ildoek hutsune bat betetzen dutela Gipuzkoako nahiz Euskal



Herriko kultur errealitatearen mapan, eta urteen poderioz bai esfera lokalean nahiz nazioartekoan erreferentzia bihurtu direla.

Horrez gain, elkarteak erregularoki egin ohi dituen hezkuntza programek bere hortan jarraitu dute. Nagusiki tailer edo lantegi formatuan, baina baita hitzaldi edo asesoritza modura esperientzia eta proiektu ugari hartu dugu parte: Nazioarteko hitzaldi, kongresu eta master class modura Australia, Alemania, Holanda, Italia eta jakina, Euskal Herriko hainbat erakunderekin egin dugu lan, lantegi teknikoak (mikrofono sorkuntza, grabaketa teknikak...) eta teoriko-praktikoak (entzumenearen lanketa, soinu paisaiaren analisia..) konbinatuz. Zentzu horretan lehen eta bigarren hezkuntzako zentruetaz gain, unibertsitateak, gobernu kanpoko erakundeak, arte edo kultur zentruak izan ditugu lagun.

Azkenik, merezi du aipatzeak, 2023an hainbat ikerketa ildo berri jarri ditugula martxan. Alde batetik Silbestriismoaren munduan ikerketa luze bat abiatu dugu, ekologia, animalia eta gizakien arteko loturak eta jada desagertzen ari den txorien kantu trebatzea bezalako arteen arteko lotura kultural eta soziopolitikoak aztertzeko. Paraleloan, aurreko urteetan jorratutako gainerako ikerketa ildoek ere (idi gurdien ikerketa historikoa, hitz basak, soinu paisai arriskutsuak...) bultzada irregular baina indartsuak jaso dituzten bitartean. Zentzu hortan, 2024an ikerketa guzti horien bilketa eta errejistro lan haundi bat ekarriko du, eta 2025eko hasieran hasiko gara emaitz definitiboak jendaurrean aurkezten.

Hasieran esan dugun bezala, eta oraindik argiago gera dadin, Audiolabek ezin izango luke urte hau laguntza publikorik gabe gainditu. Gure egitasmoak, dossieretan azaltzen ditugun bezala, denboran jorratzen dira, alegia: ekoizpenean aurreratzen dugu, ikerketa elikatuz, helburuak berretsiz eta kasu batzuetan birformulatuz. Eta honek esan nahi du egitasmoak amaitu baino, gertatzen joaten direla, egoera bakoitzera moldatzeko gaitasuna duen *continuum* batean. Naturalki sortu den metodologia horrek baliatu du hain zuzen elkarrekin, soinuarena bezalako diziplina gutxitu batean (atzean ekoizpen industria zehatzik



ez duena, ez merkatu indartsurik) hainbeste urtez biziraun izana. Eta horregatik jo izan dugu hain zuzen dirulaguntza ildo honengana laguntza eske: Gure irakurketaren arabera hau da gurea bezalako konstantzian iraunez bizitzen den aktibitatea bermatzeko topa dezakegun dirulaguntza bakanetakoa.

Zentzu honetan Oreka deialdiaren bidez jaso dugun dirulaguntzak elkartearen oinarrizko azpiegitura mantentzeko ezinbestekoa da, honen bidez baliatzen baikara aurrekonturik ez duten edo aurrekontu oso murrizta duten egitasmoei laguntzeko. Aldiberean gure zerbitzarietan gordetzen eta mantentzen ditugun egitasmo digitalen mantenu gastuek, eta kontabilitatetik eratorritakoek biltzen dute gastuaren beste ehuneko haundi bat. Eta azkenik ekoizpenaren inguruko gastuek, alor artistikokoak, dieta eta garraioek eta bestelako ordainketek osatzen dute elkartearen urteroko aurrekontua.

2. IKERKETA ETA EKOIZPENA

2.1 SOINUMAPA.NET

www.soinumapa.net

18 urteko bizitzaren ondotik, SOINUMAPA Euskal herriko Soinuen mapa publikoak soinu-paisaiaren eta soinuzko artxibo publikoen arloetan erreferente nagusi izaten jarraitzen du. Fonografiaren edo gure inguruneke soinuak jasotzeko artean oinarritutako egitasmo

honek Euskal herriko soinu-zko errealitateak bildu, erakutsi eta partekatzeko plataforma digital aitzindaria da. AUDIOLAB elkarteak independienteki kudeatzen duen webgune honetan milaka soinu entzun daitezke: hiri eta herritako zaratak, naturguneak, animaliak, ospakizun publikoak, gertakari geologikoak, lekuen sinadura akustikoak eta bestelako ekitaldi sozialak.. Artxiboaren izaera publikoari jarraituz, gure bildumako grabaketak modu eta izaera askotako egitasmoen parte dira, askotan guk ere jakin gabe. Beste hitzetan esanik, funtzio publiko bat dute eta hortarako baliatzen dituzte, esaterako hezkuntza mailan (lehen hezkuntzatik gradu altuko ikasketetaraino), sorkuntzaren esparruan (musika, zinema, dantza, arte garaikidea, antzerkia...) edo komunikabideen arloan (irradi eta telebistek, bai webguneek maiz erabiltzen dituzte artxiboko grabaketak). Mapa hau martxan jarri genuenean aurreikusi ez genituen aukera guzti hauekin Soinumaparen lehentasunak eta helburuak berdinak izaten jarraitzen dute:

- Gure errealitatek eratorritako soinuen bilketa
- Ondare inmateriala balioan jarri eta honen garrantziari buruz ohartaraztea
- Artxibo publiko eta librea eskaintzea
- Soinu paisaiaren eztabaida publikoa mahai gainean jartzea

Azken urteotan egin dugun bezala, Soinumapak fonografoaren asmakizunaren aurretik egindako soinu grabaketen ikerketa ildoari sendotu du, gure artxiboan bestelako artxibo publikoetan barreiatuta dauden erreferentzien artean bilaketa eta bilketa lan haundia osatuz eta testu nahiz irudiak gure bezalako testuinguru berri batean argitaratuz (ikus ENTZUTEKO IDATZIAK eta SOINUZKO IRUDIAK atalak Soinumapa.net webgunean). Modu honetan artxibo publiko eta irekien funtzio garrantzitsua azpimarratu nahi dugu, eta dokumentazio ikaragarri horrek gordetzen dituen altxorrek balioan jarri. Oso lan garrantzitsua iruditzen zaigu artxibo publikoen arteko elkar elikapen kultura sustatzea eta bide horretan sakontzen jarraituko dugu.

2023an zehar, [SOINUMAPA.NET](https://soinumapa.net) webgunearen estruktura osoa berritu dugu, 2024ko udaberrian publikoki guztiz berrituta aurkeztuko duguna. Bertsio berri honek orain arteko zerbitzuak bermatu eta berriak eskainiko ditu: playlisten osatzea, partehartze publikoa, artxiboak kanpoko webgunetan txertatzeko gaitasuna etabar.

Webgunearen berritze honekin ilusio haundia dugu, jada Euskal Herriko mapa numeriko publikoen barnean klasiko bat den soinu-mapa honek etorkizunerako salto nabarmena emango duelako. Modu honetan mundu mailan iraupen luzeenetakoa duen mota honetako webgune honek bere erreferentzialtasuna mantenduko du.

Erreferentzialtasun honen proba gisara, azken urteotan, [SOINUMAPA.NET](https://soinumapa.net) soinu paisari buruz nazioartean idazten diren testu akademiko eta tesi doktoral askotan aipatzen den egitasmoa da.



3. SOINU KULTURAREN ZABALPENA

3.1 ARR EDIZIOAK

ARR edizioak, azken hamarkadetan (60tik gaurdaino) Euskal herriko testuinguruan egindako soinuuzko praktikak erakustera eman eta zabaltzea izan du helburu bere hastapenetik. Musika ondare gisara ulertzen dugun korpus honek estilo eta izaera oso ezberdineko lanak bildu nahi ditu, zehazki musikaren edo etnografia-etnomusikologiaren ohiko sailkapen tradizionaletan txertatzen ez diren praktikei leku adierazgarri bat emateko helburuarekin.

4. HEZKUNTZA

Hasieratik, Hezkuntza eta pedagogia da AUDIOLAB elkartearen beste lan ildo garrantzitsuenetako bat. 2022an poliki poliki egin ohi izaten dugun lantegi eta tailer kopuruen martxa ber-hartzen hasi gara, hainbat ikastaro, hitzaldi etabar emanez. Orain arte landu ditugun elkarlan ildo jarraiekin jarraitu dugu, halanola, Elias Querejeta Zine eskola - Sorkuntza eta artxiboko ikasleei laguntza emanez, Euskal Herriko Unibertsitatearekin hainbat ikerketan parte hartuz, Uharte zentroarekin elkarlanean etabar.

Horrekin paraleloan, Soinumapa.net soinu paisaiaren inguruan egiten diren ariketa pedagogikoentzako tresna fidagarria eta erreferentea izan dadin lan egiten saiatu gara eta hala egingo dugu ere etorkizunean.

Hemen egindako hainbat modu honetako ekitaldi:

Dantzerti Arte Dramatiko eta Dantza goi mailako Eskola:

Entzumenari buruzko tailer jarraia

(Dantzerti, 2023ko urtarrila-ekaina)

Elkartu Desgaitasun fisikoa duten pertsonen gipuzkoako federazio koordinatzailearekin entzumen saioak (Rezola museoa, 2023)

Hydrophonia: urazpian entzuteko mikrofonen Sorkuntza tailerra

(Huarte Zentroa, 2023ko otsaila)

Dalla parte del fuoco: Riti, visioni, pratiche di coltivazione nel paesaggio

Giornate internazionali di studio sul paesaggio

(Treviso, 2023ko otsailak 23-24)

Hitzaldia eta zinema proiektio berezia: Soinua, argiak, espazioa.

(Planetario Valladolid, 2023ko otsaila)

Suono e geografia

(Università di Padova, 2023ko maiatza)

Soinuak eta gustoak, entzumena eta zarata

(Labiaga ikastola. 2023ko ekaina)

Escucha refugio: Errefuxiatuekin egindako entzumen tailerrak, CEAR n.g.o.-rekin

(2023ko uztaila-abuztua-iraila)

<https://www.cear.es/cear-lanza-escucha-refugio-el-podcast-para-el-que-no-basta-solo-con-escuchar/>

JAI: Jarduera artistikoen institutua

(Oteiza Museoa, Tabakalera, Artium. 2023ko abuztua)

IRRADIA: irrati Sorkuntza tailerra

(Huarte zentroa. 2023ko abuztua)

Musika elektronikoa Euskal herrian 1990-2010

(Kutxa kultur espazioa - DANTZ festibala. 2023ko iraila)

Sumendi baten eguneroko erre bati buruz

(Kutxa kultur Kluba, Natura Elektronikoa. 2023ko azaroa)

Zinemaren soinua, soinuaren zinema

(Los Trabajos y las noches jaialdia, Logroño. 2023ko abendua)



5. IKUSENTZUNEZKOAK

Hezur berriak | laburmetraia | zuz: Aritz Lazkano

<https://skullmendifilms.com/hezur-berriak>

Pizti bat agian | luzermetraia | zuz: Olatz Gonzalez, Ainhoa Gutierrez del Pozo

Samsara | luzermetraia | zuz: Lois Patiño

<https://www.berlinale.de/en/2023/programme/202306060.html>

BERLINALE Encounters 2023 - SPECIAL JURY AWARD

FICUNAM 2023 - PREMIO DEL PÚBLICO

LIMA ALTERNA FILM FESTIVAL 2023 - MEJOR FILM IBERO AMERICANO

THESSALONIKI FILM FESTIVAL - GOLDEN ALEXANDER AWARD

FIFIB 2023 - PRIX DE LA MEILLEURE MUSIQUE ORIGINALE

INTERNATIONAL CINEPHILE SOCIETY - BEST SOUND DESIGN 2023

Koyasan | laburmetraia | zuz: Lois Patiño

Lavadoiro | laburmetraia | zuz: Ana Amado

Prooimion II | sorkuntza | zuz: Xabier Erkizia

O eixo e o home | laburmetraia | zuz: Xabier Erkizia

Urruneko zarata | laburmetraia | zuz: Xabier Erkizia

Swan lake | laburmetraia | zuz: Juan Perez Agirregoikoa

O GEMER filmaren emanaldiak:

- **REWIRE JAIALDIA Den Haag, NL** (2023ko martxoa)

<https://www.rewirefestival.nl/artist/o-gemer>

- **MAPAMUNDISTAK JAIALDIA Iruñea** (2023ko urria)

<http://www.mapamundistas.com/eu/zinema-el-umbral/>

6. ARTE ESZENIKOAK

Estrategias para la transmutación | dantza | zuz: Elisa Arteta

Yarin | dantza | zuz: Jon Maya, Andres Marin, Julen Achiary

INCRA | zuzeneko ikusentzunezko emanaldi performatikoa | zuz: Andres Rodrigues

7. MUSIKA LANAK

Hemen AUDIOLABen lankidetzarekin gertatu diren hainbat musika grabaketa eta ekoizpen:

NIÑO DE ELCHE: Antipodas

(Diskoa /-oraindik argitaratzeke-)

Sidneyko Arte Biurtekoaren enkarguz

Kolektiboa: XUBEROKO KANTAGINTZA

(Diskoa / Occora, -oraindik argitaratzeke-)

JORGE OTEIZA: Memorias de Montevideo

(Diskoa /-oraindik argitaratzeke-)

CARLA NYMAN: No era sólida

(Diskoa /-oraindik argitaratzeke-)

RAUL CANTIZANO, MARCO SERRATO, TOMAS DE PERRATE: Tiento Madera

(Diskoa / -oraindik argitaratzeke-)

AINARA LEGARDON: Pausa Pulsar

(Diskoa / -oraindik argitaratzeke-)



8. ERAKUSKETAK

THAT TIME. Arte Ederren Bilboko Museoa-Tabakalera

(erakusketa / Tabakalera, 2023ko Ekaina - azaroa)

<https://www.tabakalera.eus/es/time-arte-ederren-bilboko-museoa-tabakalera-exposicion/>

AHUTSAK HARTUTA. Maialen Lujanbio & Xabier Erkizia

(erakusketa / Bilboko Arte ederren museoa, 2023ko Ekaina - iraila)

SCALA: Juanjo Aranguren & Andres Doñate: El espacio del tiempo

(erakusketa-instalazioa / Tabakalera, 2023ko apirila-ekaina)

<https://www.tabakalera.eus/en/scala-el-espacio-del-tiempo-space-time/>

SCALA: Crys Cole: Making Conversation

(erakusketa-instalazioa / Tabakalera, 2023ko uztaila-urria)

<https://www.tabakalera.eus/eu/scala-making-conversation-crys-cole/>

SCALA: Txaranga Urretabizkaia: Zortzia etzan

(erakusketa-instalazioa / Tabakalera, 2023ko abendua)

<https://www.tabakalera.eus/es/scala-zortzia-etzan-txaranga-urretabizkaia/>

ZARATAK EZ DU IZENIK: Xabier Erkizia eta audiolab elkartearen atzera begirakoa

(erakusketa / Arteo nagusia, Bera. 2023ko urria - abendua)

<https://erran.eus/bortziriak/1697790036826-xabier-erkizia-soinu-artistaren-zaratak-ez-du-izenik-erakusketa-izanen-da-ikusgai-beran-abenduaren-3a-arte>
<https://erran.eus/bortziriak/1700653135378-zaratak-ez-du-izenik-erakusketa-bisitatzen-izan-gara>

9. BESTELAKOAK

Gorputza/efectos | podcast saila

Les sons de la terre | podcast Ecouter le monde

<https://www.rfi.fr/fr/podcasts/%C3%A9couter-le-monde/20221204-les-sons-de-la-terre-%E2%80%93-la-ferme>

Sistema Eragilea webgunearen programazioa

<https://www.sistemaeragilea.eus/>

Euskalerria irratia kolaborazioa Metropoli forala saioa

Euskadi irratia kolaborazioa Amarauna saioa

Ostempo Nuna egitasmoarentzako asesoretza eta laguntza Borderline Fabrika

<https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20230610/utzi-zure-mezua-hemendik-500-urtera-biziko-direnek-aditu-dezaten>